

## **2024KO IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTUEN LEHIAKETA**

Iruñeko Udalak 2024ko IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTUEN LEHIAKETArako deia egin du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

### **1.-XEDEA.-**

2024ko IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTUEN LEHIAKETA: Lehiaketa honen xedea da ikaskuntza-zerbitzuko hezkuntza-proiektuak sortu eta abiaraztea Iruñeko ikastetxe publiko eta itunduetan eta irabazi-asmorik gabeko entitateetan, etapa bakoitzeko curriculumeko ikaskuntza-prozesuak eta ikasleek tokiko komunitateari zerbitzua ematekoak uztartzen dituen metodologia didaktiko gisa.

Hartara, Iruñeko Udalak ikusarazi nahi du ikastetxeen eta gizarte entitateetan gizalegezko konpromiso solidarioa, bai eta komunitateko eragile guztien gizarte-kohesioa eta parte-hartzea indartu ere, tokiko bizi-baldintzak hobetze aldera.

### **2.- SARI-MODALITATEAK.-**

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

- MODALITATEA: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako proiektuak.
- MODALITATEA: DBH eta Batxilergoko ikastetxeetako proiektuak.
- MODALITATEA: Lanbide Heziketako eta arte irakaskuntza arautuetako ikastetxeetako proiektuak.
- MODALITATEA: Nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko Entitate edo Elkarleen proiektuetarako, baldin eta beren estatutuen arabera helburuen artean badute hezkuntza izaerako proiektuak egitea.

### **3.- DIRU-ZUZKIDURA.-**

Deialdi honi, gehienez ere, 14.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida hauen kargura:

50/32630/450000

50/32630/482090

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

Lehen saria: 2.000,00 euro

Bigarren saria: 1.500,00 euro

Sariaren zenbatekoa saritutako proiektua gauzatzeko edo hedatzeko erabili beharko da, eta proiektuaren egile diren ikastetxe edo entitateek 2024-2025eko ikasturtea amaitu baino lehen (aurreikuspenen arabera 2025eko maiatzean) haren garapenaren berri emateko konpromisoa hartuko dute, eta, ezinezkoa balitz, lan-prozesuaren eta erdietsitakoaren azalpen-memoria bat aurkeztekoa.

Saria ematearekin batera, Iruñeko Udalak egilearengandik eskuratuko ditu, berarendako bakarrik eta mundu mailan, saritutako lan bakoitzari dagozkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak;

orobat, lan horiek erreproduzitu, banatu, jendaurrean paratu eta eraldatu ahalko ditu, libreki eta ezer gehiago ordaindu gabe, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 26. artikulua ezarritako epearen barruan. Eskubidea izanen du, baita ere, lana gaur ezaguna den edo geroan asma daitekeen beste edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ezin ukituzkotan aurkezteko. Horrek barne hartzen ditu ustiatzeko modalitateak oro, hau da, lana edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzekoa, eta horien artean, bereziki, liburu batean edo euskarri digital edo zenbakizkoan edizioa egitekoa, zein lana banatzeko eta jendaurrean paratzeko eskubideak, mundu osoko merkatuan ustiatzeari begira.

Eskubide horien artean, berriaz daude sarturik hala lanak online igorri eta zabaltzea nola sare digital elkarreragileetan eskura jartzea.

Edonola ere, proiektuaren jabe gisara, Iruñeko Udalak saritutako proiektuak erregistratzen ahalko ditu Creative Commons-en Aitortu – Ez komertziala (by-nc) lizentziapean, zeinaren bitartez lan eratorriak sortzeko baimena ematen baita, baldin eta merkataritzarako erabiltzen ez bada. Jatorrizko lana ere ezin da merkataritza-helburuetarako erabili.

#### **4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-**

Lehiaketan honako hauek parte hartzen ahalko dute

- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergo, Lanbide Heziketako eta arte irakaskuntza arautuetako Iruñeko ikastetxe publiko eta itunduek.
- Nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko entitate edo elkarteek, baldin eta beren helburuen artean badute hezkuntza izaerako proiektuak egitea.

Proiektuek jatorrizkoak izan beharko dute, 2024-2025eko ikasturtean gauzatzeko sortuak eta diseinatuak, ikaskuntza-zerbitzuko metodologiarekin bat.

Euskaraz zein gaztelaniaz aurkezten ahalko dira.

Parte hartzen duen ikastetxe, entitate edo elkarte bakoitzak ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bakarra aurkezten ahalko du hezkuntza-etapa bakoitzeko (Haur eta Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa), salbu eta Lanbide Heziketako zentroak, aurrez aurreko prestakuntza-ziklo bakoitzeko proiektu bat aurkezten ahalko baitute.

Ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak aurkezten dituzten entitate edo elkarteek GUTXIENEZ ikastetxe baten parte-hartzea egiaztatu beharko dute aurkeztutako proiektuan, ikastetxeak parte-hartze hori onartzen duela esaten duen agiri baten bidez.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI     EZ

#### **5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, non eta zein epetan.-**

PROIEKTUAK IRUÑEKO UDALAREN ESKABIDE OFIZIAL BIDEZ AURKEZTU BEHAR DIRA, ETA HORREKIN BATERA AURKEZTU BEHARKO DA, I. ERANSKIN GISARA ATXIKITA DOAN IZENA EMATEKO INPRIMAKIA.

IKASKUNTZA ETA ZERBITZUKO PROIEKTUAK BAT ETORRI BEHARKO DU I. ERANSKIN HORRETAN JASOTAKO ORIENTABIDEEKIN ETA FORMATU METODOLOGIKOAREKIN.

EZ DIRA LEHIAKETARA ONARTUKO ATXIKITAKO I. ERANSKINAREKIN BAT AURKEZTEN EZ DIREN PARTE HARTZEKO ESKAERAK, ADIERAZITAKO LUZERA GAINDITZEN DUTENAK EDO IZENA EMATEKO FORMULARIOAN ESKATUTAKO ELEMENTUREN BAT GARATZEN EZ DUTENAK.

LEHIAKETARA AURKEZTEN DIREN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE ETA ELKARTEEK HONAKO AGIRI HAUEK AURKEZTU BEHARKO DITUZTE:

A) ESKATZAILEAREN NORTASUN JURIDIKOA EGIAZTATZEN DUTEN AGIRIAK, ETA, HALAKORIK BALITZ, HAREN IZENEAN ARI DEN ORDEZKARIAREN NORTASUNA EGIAZTATZEKOAK. HONAKO HAUEK FROGATZEN DITUZTEN EGIAZTAGIRIAK: ENTITATEA LEGEEKIN BAT ERATURIK DAGOELA, ENTITATEAREN EGOITZA ETA ZERGETARAKO HELBIDEA EGIAZTATZEN DUTENAK, ETA ESKAERA AURKEZTEN DEN DATAN ENTITATEA LEGEEKIN BAT ERATURIK DAGOELA. HELBURUAK ERE JASO BEHARKO DIRA, ESTATUTUEKIN BAT.

EZ DA BEHARREZKOA IZANEN HEMEN ZEHAZTUTAKO AGIRIAK AURKEZTEA BALDIN ETA IRUÑEKO UDALAREN EDO BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATEN ESKUETAN BADAUDE, BETIERE ESKATZAILEA EZ BADA IRUÑEKO UDALAK AGIRIAK OFIZIOZ ESKATZEAREN AURKA AGERTU.

B) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, DEIALDI HONEN II. ERANSKINA EREDU HARTUTA, ZIURTATZEKO ESKATZAILEAK BETE EGITEN DITUELA ONURADUN IZATEKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAK ESKATZEN DITUEN BETEKIZUN OROKORRAK ZEIN DEIALDI HONEK ESKATZEN DITUEN BERARIAZKOAK, ETA EZEIN DEBEKU-ZIOK EZ DUELA UKITZEN, DIRULAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZA OROKORRAREN 10. ARTIKULUAN AIPATZEN DIRENEN ARTEAN.

UDALAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN URRIAREN 1EKO 39/2015 LEGEAREN 28.2 ARTIKULUAREKIN BAT, OFIZIOZ EGIAZTATUKO DU INTERESDUNAK EGUNEAN DITUELA ADMINISTRAZIO ESKUDUNAREKIKO BETEBEHAR HORIEK, ETA EGIAZTAPEN HORI DAGOKION EGINBIDEAN JASOKO DU, BETIERE SARIA EMATEKO EBAZPEN-PROPOSAMENA EGIN BAINO LEHEN.

SALBUESPENEZ, ETA IRUÑEKO UDALAK EZIN IZANEN BALITU AGIRIOK ESKURATU, INTERESDUNARI ESKATZEN AHALKO ZAIO AURKEZ DITZALA.

INTERESDUNA UDALAK EGIAZTAPEN HORIEK OFIZIOZ EGITEAREN AURKA AGERTUZ GERO, ADMINISTRAZIO ESKUDUNEK EMANDAKO EGIAZTAGIRIAK AURKEZTU BEHARKO DITU, HAUTAGAITZA AURKEZTEAN EGINDAKO ADIERAZPEN HORRETAN JASOTAKO DATUAK EGIAZKOAK DIRELA ZIURTATZEKO.

C) GIZARTE-ENTITATEEN PROIEKTUEN KASUAN, AURKEZTUTAKO PROIEKTUA GARATZEKO GUTXIENEZ IKASTETXE BATEAN PARTE HARTU IZANAREN EGIAZTAPENA, IKASTETXEKO ZUZENDARIAK SINATUTAKO PARTE-HARTZE KONPROMISOA JASOTZEN DUEN AGIRIAREN BIDEZ.

Lanak helbide honetara bidali behar dira:

**telematikoki aurkeztu behar dira Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoen bidez, honako web-helbide honetan: <https://sedeelectronica.pamplona.es/eu>**

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik

aitzina hasiko da, eta 2024ko azaroaren 8an (ostirala) amaituko. Soilik online aurkezten ahalko da, beraz, puntu honek debekatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aipatzen den beste edozein bideren bidez aurkeztea.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

## **6.- EPAIMAHAIIA.-**

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako, eta Kiroleko Alorreko Zinegotzi Ordezkarria, edo horrek eskuordetutako pertsona.
  - Epaimahaikideak: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria edo horrek eskuordetutako pertsona.
  - Iruñeko Udalak antolatuko duen ikaskuntza-zerbitzuari buruzko prestakuntza-ikastaroa emanen duten hizlarietako bat.
  - Ikaskuntza Zerbitzu Solidarioaren Nafarroako Sareko kide bat, elkarteak berak izendatua.
- Udaleko pedagogo edo horrek eskuordetzen duena.

- Idazkaria: Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariak izendatutako administrari bat.

Epaimahaiak honako irizpide hauei jarraituz emanen die puntuazioa proiektuei:

- Lotura curriculumeko ikaskuntzaren eta proiektuak gauzatu nahi duen zerbitzuaren artean.
- Praktikaren tamaina, honako hauek aintzat hartuta: proiektua gauzatzean engaiatutako ikasle-kopurua – ez hartzaile-kopurua–, matrikula-kopuru osoarekin alderatuta, zerbitzuaren hartzaile-kopurua eta proiektuaren iraupena.
- Zerbitzu-proiektuak hirian duen garrantzia eta eragina.
- Sareko lana ikastetxe eta tokiko gizarte-entitateen artean proiektua gauzatzeko.
- Proiektua gauzatzeko duten ikasleen parte-hartze aktiboa prozesuaren fase guztietan zehar: premiak identifikatzea, proiektua diseinatzea, hura gauzatea eta amaierako ebaluazioa egitea.
- Parte hartuko duten ikasleen artean gogoeta eta pentsamendu kritikoa bultzatzen dituzten ekintzak.
- Gizartean bazterturik gelditzeko arriskuan dauden Iruñeko herritarrei zuzendutako proiektuak.
- Giza eskubideak eta haurren eskubideak babestu eta hedatzeko proiektuak.

Instrukzio-organoak organo eskudunari, hau da, Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariari aurkeztuko dio sari-proposamena, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera:  BAI  EZ

## **7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-**

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoetz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu

datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean kontsultatzen ahal dituzu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta hainbat komunikabidek zabaldu.

### **8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-**

Ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Ebazpena argitaratzeko beharra:  BAI  EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoa

### **9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-**

**Ikaskuntza eta zerbitzuko proiektuak bat etorri beharko du proiektuak aurkezteko epea amaitu aurretik kudeaketa-arloak antolatuko duen ikaskuntza-zerbitzuko proiektu bat egiteko saio praktikoan azalduko diren jarraibideekin eta formatu metodologikoarekin.**

**Behin saritutako proiektuak bete eta gero, horiek egilea den ikastetxe edo entitate/elkarte bakoitzak aurkeztuko ditu 2024-2025eko ikasturtea amaitu baino lehen, edo, horiek publikoki aurkeztea ezinezkoa bada, lan-prozesua eta erdietsitakoa azaltzeko azalpen-memoria bat aurkeztu beharko da, hori egin dela egiaztatzen duen edozein euskarri grafiko zein ikus-entzunezkoren bidez, Udalak ezartzen duen edozein unetan jendaurrean hedatu ahal izateko.**

**Proiektuen aurkezpenak horiek egin direla egiaztatzeko balioko du.**

### **10.- ERREKURTSOAK.-**

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haien lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsu hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsua, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

SARI-DEIALDIA, IKASKUNTZA-ZERBITZUKO PROIEKTUETARAKO, IRUÑEKO IKASTETXE  
PUBLIKO ETA ITUNDUEI ZEIN GIZARTE ENTITATEEI ZUZENDUA

**1. ERANSKINA: INPRIMAKIA, 2024KO DEIALDIAN IZENA EMATEKO**<sup>1</sup>

<b>Fitxa teknikoa</b>	
Proiektuaren izena	
Ikastetxe edo entitate arduraduna	
Entitatearen / ikastetxearen helbidea eta telefonoa	
Proiektuaren arduraduna	
Arduradunaren telefonoa eta helbide elektronikoa	
Irakasleak edo parte-hartzen duen entitateko langileak (ez hartzaileak, zerbitzua egiten dutenak baizik): Izen-abizenak	
Parte-hartzen duten neska-mutilak: kopurua eta ikasmila	
Proiektuaren curriculum-arloak edo ikaskuntza-eremuak	
Entitate laguntzaileak	
Hartzaileen kolektiboa	

---

<sup>1</sup> Nafarroako Ikaskuntza-Zerbitzuko (ApS) Sareak 2023ko Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioko (AySS) 2023ko proiektuen diseinurako Nafarroako I. Lehiaketarako egindako inprimakitik abiatuta.

## Proiektuaren planteamendua

Zehaztu beharreko alderdia (Galdera orientagarriak)	Bete zutabe hau zeure proiektuarekin
<p><b>Proiektuaren laburpena</b> Deskribatu ezazu, lerro gutxitan, proiektuaren nondik norakoa (lehen irakurraldian ulertzeko moduan eta Ikaskuntza-Zerbitzuko funtsezko elementuak adierazita)</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko): Hizkuntza eta Teknologia irakasgaietatik, neska-mutilek laguntza eta estimulua eskainiko diete ikastetxetik hurbil dauden Erretiratuen Zentroko adinekoei, eta smartphoneak erabiltzen lagunduko diete bilobekin eta beste senide batzuekin komunikatzeko.</p>
<p><b>Landuko den ingurunearen gizarte-premia</b> Deskribatu, hitz gutxitan, zer gizarte-premiari buruz lan egingo duten neska-mutilek.</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko): Adinekoen bakartze sozial eta emozionala eta haien narriadura kognitiboa geldiarazteko beharra, eta komunikatzeko aukera berriak irekitzea</p>
<p><b>Zerbitzu solidarioa</b> Azaldu laburki neska-mutilek egingen duten zerbitzua</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko): Memoria-lantegiak eta jolas-jarduerak antolatzea eta egitea, adinekoei laguntzeko eta haien bakardadea arintzeko.</p>
<p><b>Lotura GJHeekin eta haien helburuekin</b> Garapen Jasangarriko zer Helburuekin eta horietako bakoitzeko zer jomugarekin lotzen da proiektua?</p>	<p>Adibidea:            4. helburua: Kalitatezko hezkuntza.            10. helburua: Desberdinkeriak murriztea.                - 10.2 jomuga: pertsona guztien gizarteratzea eta inklusio ekonomikoa eta politikoa bultzatzea eta sustatzea.            17. helburua: Aliantzak, helburuak lortzeko.</p>
<p><b>Neska-mutikoen hezkuntza-premiak</b> Neska-mutilek hobetu behar dituzten curriculum-edukien, balioen eta/edo jarrera pertsonalen zerrenda laburra</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko): Hizkera arrunt edo zantarraren erabilera, bizikidetzeta-gatazkak ikasgelan; adinekoekiko gutxiespen- edo mespretxu-jarrerak; adinekoekin komunikatzeko zailtasunak...</p>
<p><b>Landuko diren hezkuntza-helburuak eta/edo curriculumeko edukiak</b> Gizarte-erakundeendako: zerrendatu proiektu honekin indartzen ahal diren funtsezko ikaskuntzak (erakundearen helburuekin edo jarduerekin zerikusia dutenak) Ikastetxeendako: gaitasunak</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zahartzeari eta adinekoendako gizarte-baliabideei buruzko ezagutza.</li> <li>▪ Bakardadeari eta adinkerari buruzko hausnarketa.</li> <li>▪ Pertsona nagusiekiko komunikazio-trebetasunak, modu onak eta tratua.</li> <li>▪ Antolaketa-trebetasunak lantegien garapenean.</li> <li>▪ Besteekiko zerbitzu-jarrera.</li> </ul>

<p>eta oinarrizko jakintzak.</p>	
<p><b>Ikaskuntzako jarduerak</b>  Ikasleek zerbitzua hobeki emateko eginen dituzten ikaskuntza-jardueren deskribapen laburra, jarduera horien diseinuan eta metodo gisa lankidetzan parte hartzeko beharra kontuan hartuta.  Adierazi zein eginen diren ikastetxe edo gizarte-erakundearen egoitzaren barruan eta zein kanpoan.</p>	<p><b>Ikastetxearen barruko jardueren adibidea (hari buruz idazteko):</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Auzoko gizarte-langilearen bisita ikasgelara, zonaldeko adineko pertsonen duten errealitatea azaltzeko.</li> <li>▪ Memoria bizkortzeko jardueren ikaskuntza eta praktika.</li> <li>▪ Smartphoneekin egiteko jarduerak hautatzea eta adinekoen zentroko lan-saioak prestatzea.</li> <li>▪ Zerbitzuan baliatu beharreko gaitasunei buruzko banakako gogoeta.</li> </ul> <p><b>Ikastetxetik kanpoko jardueraren adibidea (hari buruz idazteko):</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Adinekoen zentroko arduradunekin harremanetan jartzea, ekimena proposatzeko eta egutegi bat zehazteko</li> <li>▪ Saioak antolatzeke eta garatzeko eskema, eta ikasleen artean rolak banatzea.</li> </ul>
<p><b>Zerbitzuko jarduerak</b>  Zer jarduera egiten dituzte neska-mutilek zerbitzua emateko?  Jarduerak, parte-hartzea eta lankidetzan kontuan hartuta.  Adierazi zein eginen diren ikastetxe edo gizarte-erakundearen egoitzaren barruan eta zein kanpoan.</p>	<p><b>Ikastetxearen barruko jardueren adibidea (hari buruz idazteko):</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Bisitatuko gaituzten gizarte-erakundeko pertsonekin diseinatutako laguntza-jarduerak egitea.</li> <li>▪ Zerbitzuaren ebaluazioa, jarduera amaitu ondoren, adinekoen zentroko arduradunen parte-hartzearekin</li> </ul> <p><b>Ikastetxetik kanpoko jardueraren adibidea (hari buruz idazteko):</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Adinekoen zentroan lantegiak egitea</li> <li>▪ Lantegiei buruzko azalpen-bideo bat grabatzea.</li> <li>▪ Jarduerari buruzko informazio-liburuxka bat egitea eta banatzea</li> </ul> <p>Lantegien amaierako ekitaldia egitea erabiltzaileekin, adinekoen zentroan bertan.</p>
<p><b>Hausnartze jarduerak</b>  Zer jarduera eginen dira pentsamendu kritikoa garatuz arazoaren kausei eta ondorioei buruz hausnartzeko?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen ikerketaren ondoren, antzemandako beharrendaren arrazoiei buruzko eztabaida egin genuen.</li> <li>• <i>Role-playing</i> bat egitea, adinekoak eta horiek gizarte-ingurunearekin duten harremana irudikatzeko.</li> <li>• Aurkitu dugunetik zerekin ez gaude ados?</li> </ul>
<p><b>Jardueren egutegia:</b>  Diseinatutako ekintzak gauzatzeko egutegiaren azalpen</p>	<p>Egutegi eskematikoa txertatu.</p>

laburra	
<p><b>Neska-mutilen protagonismoa</b></p> <p>Zer eginen dugu neska-mutilek proiektua beraiena dela senti dezaten sustatzeko? Nola erdietsiko dugu neska-mutilen parte hartzea errealitate eta erabakiak hartzea aldi guztietan? Beharren ikerketa, zerbitzuaren diseinua, jardueren diseinua, ebaluazioaren diseinua...?</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Proiektuan parte hartzeko banakako konpromisoa sinatzea</li> <li>▪ Proiektuaren izenari, antolamenduari eta zereginen banaketari buruzko erabakiak hartzea.</li> <li>▪ Erantzukizunak banaka eta taldeka banatzea.</li> <li>▪ Gauzatu beharreko jardueri buruz erabakiak hartzea.</li> <li>▪ Ebaluazioa batera diseinatzea.</li> </ul>
<p><b>Sare-lana</b></p> <p>Zer erakunderekin lan eginen dugun eta zer akordio lortuko ditugun haiekin</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko):</p> <p>Adinekoen auzoko zentroa: Adinekoen ekarpena; egoitza lantegietarako uztea; neska-mutilek egindako zerbitzua gainbegiratzea eta horri buruzko aholkuak ematea.</p> <p>Udaleko gizarte-zerbitzuak: Landu beharreko arazoaren planteamenduan parte hartzea.</p>
<p><b>Ospakizuna:</b></p> <p>Proiektua egin izana ospatzeko eta parte hartu duten alderdiek emandako zerbitzuen aintzatespena elkarri publikoki adierazteko jarduerak</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko):</p> <p>Askari bateratua adinekoen zentroan, lantegien amaiera gisa, parte-hartzaile guztien parte-hartzearekin eta jarduerari eta belaunaldien arteko harremanari buruzko oroitzapenen trukearekin.</p>
<p><b>Hedapena</b></p> <p>Proiektua ezagutarazteko proposaturiko ideiak</p>	<p>Adibidea (hari buruz idazteko):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Alkateari proiektuaren amaiera-ekitaldirako gonbidapena egitea, tokiko prentsa bertan dela, ahalik eta oihartzun handiena emateko</li> <li>▪ Bideo labur bat erregistratzea eta sare sozialetan zabaltzea.</li> <li>▪ Gune bat gaitzea ikastetxearen edo erakunde sozialaren webgunean.</li> <li>▪ Proiektua Udalaren webgunean sartzea.</li> </ul>
<p><b>Baliabideak</b></p> <p>Zer behar da proposaturiko jarduerak gauzatzeko?</p>	<p>Behar diren baliabideen adibidea (haien gainean idazteko):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Baliabide ekonomikoak: Proiektuaren gastuen aurrekontua eta bideragarritasuna (garraioa, materialak...).</li> <li>▪ Giza baliabideak. Boluntarioen edo profesionalen laguntza...</li> <li>▪ Antolaketa-baliabideak: baimenak, erantzukizunen banaketa</li> </ul>

**Ebaluazioa**

Nola ebaluatuko da proiektua: ikaskuntzak, zerbitzuaren emaitzak, sareko lana...?

Ikastetxeen kasuan, hautatutako gaitasunekin eta jakintzekin lotutako curriculum-ebaluazioko irizpideak.

**Adibidea (hari buruz idazteko):**

- Autoebaluazio-galdetegia, lortu nahi ziren ikaskuntza-helburuei buruzkoa.
- Adinekoen zentroak neska-mutilen jardunari buruz egindako balorazioa jasotzeko galdetegia.
- Lortutako curriculum-ikaskuntzak ebaluatzeko jarraibide-taula.

**- 2. ERANSKINA:  
-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA-**

Izen-abizenak: .....

Helbidea (jakinarazpenetarako):  
.....

NAN: ..... Telefonoa:.....

Faxa: ..... Helbide elektronikoa: .....

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):  
.....

Helbidea: .....

IFZ: .....

Telefonoa: ..... Faxa: ..... Jakinaren gainean nago dirulaguntzen deialdia egin dela, norgehiagokako araubidean, xede honetarako:  
.....  
.....,

**ADIERAZTEN DUT:**

- Bete egiten ditut onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak.
- Ez nau ukitzen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikulua onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere.
- Egunean ditut zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dut 2024ko Ikaskuntza eta Zerbitzuko Proiektuen Lehiaketan lortutako sariaren zenbatekoa proiektu saritua gauzatzeko erabiltzeko.
- Konpromisoa hartzen dut adierazpen honek zehazten dituen inguruabarrak ziurtatzeko, errekerimendua noiz egin eta hortik hamabost eguneko epean, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 15.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean, .....(e)ko.....aren .....(e)an.  
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrek emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan ([www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu)) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.